

Gure produktuen publiko potentziala asko izango dira, baina batez ere bi talde handiri bideratuko diegu: Kirolariei eta osasunekiko interesa duten pertsonen.

Kirolariak dira gure adimendun arropen erabilizaile nagusietako batzuk, produktu hauek beren jarduera fisikoa hobetzeko oso eraginkorrak direlako. Kirolarientzat ezinbestekoak dira jantzi erosoak, arinak eta praktikoak, eta gure arropak horrelakoak izango dira, aldi berean gorputzaren funtzionamenduari buruzko informazio zehatza eskainiko diete. Entrenamenduaren jarraipena egiteko, errendimendua neurtzeko edo lesioak saihesteko, gure produktuek kirolariak lagun ditzazkete bere egunerokoan.

Osasunarekiko interesa duten pertsonak ere gure publiko garrantzitsua dira. Gero eta jende gehiagok bere ongizatea zaintzen saiatzen dira baina ez dakite nola eta gure adimendun arropak, gorputzaren parametroak monitorizatzeko gaitasuna dutenez, prebentzioa eta autozaintza sustatzeko aukera paregabea eskaintzen dute. Gure produktuak egokiak dira egunero jarduera fisiko moderatua egiten dutenentzat, beren postura hobetzeko edo gorputz-tenperaturaren eta bestelako osasun-adierazleen kontrola egiteko interesa dutenentzat.

Horietaz gain, gure arropa beste talde batzuei bideratu ahal zaie edo erabilgarria izan daiteke.

Adibidez: Adineko pertsonen beren osasuna hobetzeko eta arriskueta ohartaratzeko, langile aktiboekin beraien esfortzu fisikoaren errendimendua handitzeko eta lesioak saihesteko, lesio bat izan duten pertsonen errehabilitaziorako eta azkenik familia edo zaintzaileei txarto dagoen familiako kide batek arazo bat izanez gero ohartarazteko.

